

GKJK: laguntza gida

Gordailu eta Kontsignazio Judizialen Kontua (GKJK)

Herritarrentzako eta Justizia arloko profesionalentzako informazio dokumentua

Zer dira Gordailu eta Kontsignazio Judizialen Kontuak (GKJK)?

Banku kontuak dira, eta hor eratzen dira prozedura judizialen esparruan egiten diren gordailu eta kontsignazio judizialak. Organo judizialen izenean daude.

Zer dira gordailu judizialak?

Gordailu judiziala da ebazpen judizial bat betetzearen GKJKetan egiten den diru sarrera.

Gordailu judiziala eratzen da ondorengo kasu hauetan:



- Prozedura judizialeetatik eratorritako bermeak, fidantzak, kauzioak edo beste betekizun batzuk betetzea.



- Estatuko segurtasun indar eta kidegoek diru edo balore bihurtgarriak konfiskatzea.



- Ondasun enbargoen eta jarduketa judizialen ondorioz diru sarrera egitea.

Zer dira kontsignazio judizialak?

Kontsignazio judiziala diru sarrera bat da, GKJKetan honako gai hauek direla eta egiten dena:



- Betearaztea dakarten tituluak borondatez edo nahitaez betearaztea.



- Zor den gauza edo zenbatekoa hartzekodunaren edo epailearen eskura gordailutzean datzan betebeharrak bat ordaintzeko bidetzat.



- Kopuru bat ordaintzera behartuta dagoenak betebeharrak horretatik askatzeko egindako diru sarrerak, edo lege ezarritako beste kasu batzuetan egindako diru sarrerak.



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE LA PRESIDENCIA, JUSTICIA
Y RELACIONES CON LAS CORTES

Nola egingo ditut diru sarrerak eta ordainketak Gordailu eta Kontsignazio Judizialen Kontuetan (GKJK)?

Eragiketak egin ahal izateko beharrezko datuak:



Espedienteko kontu zenbakia
(organo judizialak emana, 16 digituz osatuta dago).



Diru sarrera egiten duenaren **izena edo sozietate izena**; eta, besteren kontu egin badu, haren izena edo sozietate izena.



Identifikazio fiskaleko zenbakia. Agindu-emailearen helbidea. Eragiketaren zenbatekoa. Kontzeptua. Data

Nola egingo dut diru sarrera Banco Santanderretik?

ESKUDIRUA

- **Banco Santanderreko edozein bulego edo kutxazainetara bertaratuta.** Kutxazainetan, sarrera billeteetan baizik ezin da egin, eta 1.000 euro baino gutxiagoko kopuruan. Banco Santanderreko kontu baten titularra baldin bazara, dirua zure kontutik sartzea eska dezakezu.
- Eskudirutan dirua sartzeko onartzen diren monetak hauek dira: EUROA (EUR) edo eurora bihur daitezkeen dibisak.

BANKU TXEKEA

- **Banco Santanderreko edozein bulegotara bertaratuta.** Txekea, diru sarrera agindu duen epaitegi edo auzitegiaren izenean joango da. Banketxearen (Banco Santander) izenean datozen txekak ere onartzen dira.
- *Ez da onartuko eramailearentzako txekerik, kontu korronteetako txekerik, edo ATZERRIAN JAULKITAKO txekerik (horien jaulkipen moneta edozein dela ere), nahiz eta Europar Batasuneko herrialdeak izan Banku txekak edo eurotan (EUR) izendatutakoak soilik izango dira baliozkoak, eta baldin Espainian ezarrita dauden eta Konpentsazio Sistema Nazionalean parte hartzen duten erakundeek jaulkitakoak badira.*

BANCO SANTANDERREKO KONTU BATETIK EGINDAKO BANKU TRANSFERENTZIA

1. Banco Santanderreko bulegoan bertan artatuko zaituzte eragiketa hori egiteko.
2. Online bankuan sartuta, helbide honetan: www.bancosantander.es

Aukera hauek hautatu:

- «Particulares» fitxa, «Acceso Clientes», «Cuentas y Tarjetas», «Pagos», «Consignaciones Judiciales», edo
- «Empresas» fitxa, «Acceso Clientes», «Tesorería», «Recibos y Otros Pagos», «Ingreso en Órganos Judiciales».

Enpresa handientzat, aseguru etxeentzat eta abarrentzat, transferentzia masiboak errazten dituen prozedura definitu bat dago (Espainiako Banku Elkartearen 34. koadernoan oinarritua). Banketxearekin harremanetan jartzea gomendatzen da.


Gogoan izan ezazu beharrezkoa dela **ezkerraldean adierazitako datu** guztiak ematea. Espedienteko kontu zenbakia prozedura daraman organo judizialak ematen du.

Gogoan izan ezazu beharrezkoa dela **ezkerraldean adierazitako datu** guztiak ematea. Espedienteko kontu zenbakia prozedura daraman organo judizialak ematen du.

Gogoan izan ezazu beharrezkoa dela **ezkerraldean adierazitako datu** guztiak ematea. Espedienteko kontu zenbakia prozedura daraman organo judizialak ematen du.



Nola egingo ditut diru sarrerek eta ordainketak Gordailu eta Kontsignazio Judizialen Kontuetan (GKJK)?



Nola egingo dut diru sarrera Banco Santander ez den beste banketxe batetik?

BANKU TRANSFERENTZIA

- Igorri transferentzia ondorengo IBAN hau (24 digitu) duen banku kontura:

ES55 0049 3569 9200 0500 1274 (SWIFT kodea: BSCHESTM)

- «**AGINDU-EMAILEA**» eremuan, diru sarrera egitera behartuta dagoen pertsona fisikoaren edo juridikoaren izena edo sozietate izena adieraziko da, bai eta haren IFZ/IFK ere.
- «**ONURADUNA**» eremuan, sarrera agindu duen epaitegia edo auzitegia identifikatuko da.
- «**OHARRAK EDO TRANSFERENTZIAREN KONTZEPTUA**» eremuan, **espedienteko kontuaren 16 digituak** adieraziko dira (prozedura judiziala daraman organo judizialari eska diezazkiokezu). Gainera, harremanetarako telefonoa adieraz dezakezu; horrela, behar izanez gero, organo judizialarekiko komunikazioa erraztuko duzu.
- OSO GARRANTZITSUA:** **Espedienteko kontuaren 16 digituak bloke bakarrean** adierazi behar dira. Garrantzitsua da 16 digituko bloke hori **gainerako informaziotik bereiztea, zuriune bat jarrita aurretik eta atzetik.**

Baldin 16 digitu horiek agertzen ez badira edo oker idazten badira, sistemak errorea emango du, eta kontu hori ez dela existitzen adieraziko du.


Enpresa handientzat, aseguru etxeentzat eta abarrentzat, transferentzia masiboak errazten dituen prozedura definitu bat dago (Espainiako Banku Elkartearen 34. koadernoan oinarritua). Banketxearekin harremanetan jartzea gomendatzen da.



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE LA PRESIDENCIA, JUSTICIA
Y RELACIONES CON LAS CORTES

Nola egingo ditut diru sarrerak eta ordainketak Gordailu eta Kontsignazio Judizialen Kontuetan (GKJK)?



Nola egingo dut diru sarrera kutxazain automatikoz?

Kutxazainera joanda, bi aukera hauek bat hartu: edo eskudirutan dirua sartu (txartelik gabeko eragiketen menua), edo edozein erakundek jaulkitako zordunketa/kreditu txartelarekin dirua sartu (txartela sartuta), herritarrentzako komisiorik gabe.

TXARTELIK GABEKO ERAGIKETAK

«Txartelik gabeko eragiketak» azpimenuaren barruan, hautatu «*Organo judizialerako diru sarrera*» aukera, honako alderdi hauek kontuan hartuta:

- ✓ Diru-sartzea billeteak soilik erabiliz egin ahal izango da, eta 1.000 eurotik beherako kopuruetara mugatuta.
- ✓ Gaitutako ordainbidea «eskudirutan sartzea» da.
- ✓ Estatuko lurraldeko edozein organo judizialetara egin daiteke diru sarrera.
- ✓ Ezinbestekoa da zenbatekoaren xede den espedienteko kontuaren 16 digituak ezagutzea (organo judizialak adierazitako kontua).
- ✓ Kutxazainaren panelean, hautatu «Organo judizialerako diru sarrera» aukera.

TXARTELAREKIKO ERAGIKETAK

Txartela kutxazaineen sartzeko ondoren, txartel bidezko eragiketen menu nagusian, erabili «Beste eragiketa batzuk» aukera.

- «Organo judizialerako diru sarrera» aukera hautatu beharko duzu, honako alderdi hauek kontuan hartuta:
 - ✓ Estatuko lurraldeko edozein organo judizialetara egin daiteke diru sarrera.
 - ✓ Ezinbestekoa da zenbatekoaren xede den espedienteko kontuaren 16 digituak ezagutzea (organo judizialak adierazitako kontua).
- Kreditu txartel batekin ordainduz gero, sistemak aukera hauek eskainiko ditu:
 - ✓ Txartelaren kreditua
 - ✓ Kontu korrontea
- Aukera hori ez zaie erakutsiko diru sarrera zordunketa txartelarekin egiten duten herritarrei.
- Eragiketa horiek ez dute komisiorik edozein bankutako txartelatarako.

UDALERRIKO JUSTIZIA BULEGOETARAKO DIRU SARRERA EGITEA

- Udalerriko Justizia Bulego baten espedienteko kontuaren kodea «5500» edo «0760» zenbakiekin hasten da. Kasu horietan, sistemak automatikoki jardungo du, honako kasuistika honekin:
- Espedienteko kontuaren kodearen zati bat automatikoki betetzea, baldin «0760» kodea sartu bada; eta kode hori osorik betetzea, baldin «5500» kodea sartu bada. Jarrai iezaiezu kutxazainak ematen dizkizun jarraibideei.



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE LA PRESIDENCIA, JUSTICIA
Y RELACIONES CON LAS CORTES

Nola egingo ditut diru sarrerak eta ordainketak Gordailu eta Kontsignazio Judizialen Kontuetan (GKJK)?



Nola egingo dut Internet bidezko diru sarrera txartelarekin?

Internet bidez, Carpeta Justicia webgunean sartuta (<https://carpeta.justicia.es>), edozein erakundek jaulkitako kreditu edo zordunketa txartela erabiliz, eta herritarrentzako komisiorik gabe.

DIRU SARRERA EGITEKO FORMULARIOA

Sistemak pantaila bat du, diru sarreraren datuak behar bezala betetzeko:

- ✓ Diru sarrera egiten duen pertsonaren izena, abizenak eta IFZ/AIZ.
- ✓ Ordezkarari baten bidez diru sarrera egiten duen pertsonaren izena, abizenak eta IFZ/AIZ. (Hutsik utzi, ez badagokio.)
- ✓ kontzeptua, organo judizialak adierazitako espedienteko kontua, eta zenbatekoa. Errekurtso baterako baldin bada, errekurso mota identifikatuko da.

UDALERRIETAKO JUSTIZIA BULEGOETARAKO DIRU SARRERA EGITEA

Diru sarrera udalerriko Justizia Bulego baterako denean, datu pertsonalez gain, honako hauek ere bete beharko dira:

- ✓ Posta kodea. Hori betetzean, erabiltzaileak posta kode horri dagokion bulegoa hautatu ahal izango du, eta automatikoki osatuko dira dagokion udalerria eta probintzia.
- ✓ Prozedura (2 digitu).
- ✓ Espedientea (4 digitu).
- ✓ Urtea (espedientearen azken 2 digituak).



Prozedura, espedientea eta urtea
(Organo judizialak adierazten ditu).

DIRU SARRERA FORMALIZATZEA

- Datuak sartu ondoren, «Ordaindu» botoia sakatu beharko duzu. Pantaila bat agertuko da. Hor, txartelaren identifikazio datuak bete beharko dituzu (txartel zenbakia, iraungitze data —hila eta urtea—, CVV kodea —3 digitu, txartelaren atzealdean adieraziak—). Gero, «Ordaindu» sakatu beharko duzu.
- Ordainketa osatzean, «Jarraitu» sakatu behar da. Orduan, erabiltzaileak ordainketa frogagiria eskuratu eta deskargatu ahal izango du, egiaztagiri gisa.



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE LA PRESIDENCIA, JUSTICIA
Y RELACIONES CON LAS CORTES

Nola egingo ditut diru sarrerak eta ordainketak Gordailu eta Kontsignazio Judizialen Kontuetan (GKJK)?



Nola kobratu dezaket ordaintze manamendu bat?

KONTU KORRONTERA TRANSFERENTZIA EGINEZ, EPAITEGITIK BERTATIK

Justizia Administrazioak ordaintze manamenduak egin diezazkieke herritarrei edo enpresei, onuradunek adierazitako kontura banku transferentzia eginez. Transferentzia da lehentasunezko kanala, organo judizialek ordainketa egiteko.

Bizkorrago kobratu ahal izateko, gomendatzen da organo judizialari bidaltzea transferentzia bidezko ordaintze manamendua jasoko duen banku kontuaren titulartasunaren ziurtagiria, onuradunaren izenean dagoela egiaztatzen duena.

ESKUDIRUTAN

Soilik baldin eta banku kontu hori adierazi ez bada, organo judizialak ordaintze manamendu bat eman ahal izango du Banco Santanderren bulegoetan kobratzeko.

Ordaintze manamenduaren onuradunak **IFZ** (partikularren kasuan) edo **IFK eta ahalak** (enpresen kasuan) aurkeztu beharko ditu manamendu hori kobratzeko; edo, bestela, onuradunekin bat datorren titulartasuna duen kontu korronte batean sartu beharko du diru hori.

GKJKrekin erlazionatutako egungo eragiketa guztiek Banco Santanderreko sukurtsalen arreta pertsonalizatua dute.

Nola kontsulta ditzaket espedienteko kontu baten mugimenduak?

JUSTIZIAKO PROFESIONALAK (PROKURADOREAK, GIZARTE GRADUATUAK, ABOKATUAK)

Justiziako profesionalak, beren bezeroaren baimenarekin eta Justizia Administrazioaren letraduaren baimenarekin, espedienteko kontuak kontsultatzeko aukera dute, Carpeta Justicia webgunearen bidez (carpeta.justicia.es).

Kudeaketa prozesaleko sistemen eta gordailu eta kontsignazio kontuen aplikazioaren arteko elkarreragingarritasuna hedatu ahal a, espedienteetako kontuak automatikoki kontsultatu ahalko dira, aldez aurretik eskaerarik egin beharrik gabe.

Nora jo dezaket gordailu
eta kontsignazio judizialen
kontuei (GKJK) lotutako
kudeaketak eta kontsultak
egiteko?



GKJKen arloan herritarrei arreta emateko orriak

<https://sedejudicial.justicia.es>

Harremanetarako
formularioa

Elkarrizketa-
laguntzailea

Arreta
902 007 214

Telegram
663 290 227

BERRIA: GKJKen arloko herritarrentzako eta profesionalentzako doako arreta telefonoa

Arreta
900 101 906



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE LA PRESIDENCIA, JUSTICIA
Y RELACIONES CON LAS CORTES